

HADE

Heilduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

AZTERKETARIAREN EGITEKOA: B1 MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketak

- 1. ZATIA. Aztertzaileen galderak
- 2. ZATIA. Gaia garatu
- 3. ZATIA. Bat-bateko elkarrizketa

(minutu 1/1,
ikasteko)

(3:30/3:30,
ikasteko)

(2:30/2:30,
ikasteko)

**Guztira 15 bat
minutu
(bikoteko)**

Asteburuko planak



EGOERA

Gure ohiturak asko aldatu dira krisiaren ondorioz. Garai batean, asteburu gauetan tabernak jendez gainezka egoten ziren; gaur egun, gaua iristen denean, hutsik egoten dira.

EGITEKOA

Kontatu azken asteburuan non eta norekin egon zinen. **Azaldu** zer egiten duzun asteburuetan. **Azaldu** nequko eta udako asteburuetan plan berdinak izaten dituzun. **Arrazoiak** eman. **Adierazi** zertan aldatu ditugun aisialdi-ohiturak. **Arrazoiak** eman.

Gogoratu 2 minutu inguru duzula hitz egiteko.

Amaieran, aztertzaileak beste azterketariari galderaren bat egingo dio zure gaiaz, eta hark bere azalpena bukatzen duenean, zuri egingo dizu.

HADE



Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

AZTERKETARIAREN EGITEKOA: 1. MAILA

Ahozko azterketa

Gaia prestatzeko 10 minutu

GAIA: ARROPA EROSTEN



Egitekoa:

Arropa erosterakoan gauza batzuk izaten dira kontuan: moda, prezioa, norberaren gustua...
Zeri begiratzen diozu zuk? euskaragara.net

Zehatzago

Azaldu zer izaten duzun kontuan arropa erosterakoan. Zenbateraino jarraitzen diozu modari?
Zer da garrantzitsuagoa arroparen prezioa edo arropa gustukoa izatea? Dendara joan
aurretik jakiten al duzu zer erosi? Zure udalerriko dendetan erosten al duzu arroparik?
Zergatik? Merkealdietan edo merkadilloan erosten al duzu? Gizonezkoak ala
emakumezkoak dira modazaleagoak?

Gogoratu 2 minutu inguru duzula hitz egiteko.

Amaieran, aztertzaileak beste azterketariari galderaren bat egingo dio zure gaiaz, eta hark bere azalpena bukatzen duenean, zuri egingo dizu.

HABE

AZTERKETARIAREN EGITEKOA: B1 MAILA. Ahozko proba.

Gaia prestatzeko 10 minutu

GAIA: Curriculuma hobetu



Egoera:

Krisi garaian bizi gara eta askok apobetxatzen dute beren curriculuma hobetzeko: masterrak egin, beste ikasketa batzuk egin... Edozerk balio du curriculum on bat izateko. Hizkuntzak ikastea ere oso funtsezkoa da eta askok ingelesa, euskara... ikasten dute.

Egitekoa:

Kontatu zein den zure esperientzia hizkuntzen ikaskuntzan. **Adierazi** zeintzuk hizkuntza ikasi dituzun eta zein helbururekin. **Konparatu** hizkuntza horiek eta euskara ikasteko izan duzun esperientzia. **Arrazoitu** zure iritzia. **Azaldu** zein garrantzia duten hizkuntzek, zure ustez, curriculum on bat izateko. **Eman** arrazoiak.

Gogoratu 2:30 minutu inguru duzula hitz egiteko.

Amaieran, aztertzaileak beste azterketariari galderaren bat egingo dio zure gaiaz, eta hark bere azalpena bukatzen duenean, zuri egingo dizu.

HABE

B1 MAILA

Gaia prestatzeko 10 minutu

GAIA: Etxebizitza alokatu ala erosi?



Egoera:

Krisia dela, banketxeek mailegurik ematen ez digutela ... gaur egun etxebizitza bat erostea zaila da eta askok etxebizitza alokatzea erabakitzen dugu.

Egitekoa:

Adierazi bizi zaren etxebizitza zurea, gurasoena den ala alokatutakoa. **Adierazi** zein diren alokatutako etxebizitza batea n bizitzearen abantailak eta desabantailak. **Adierazi** gaur egun etxebizitza erostea lehen baino zailagoa den. **Arrazoitu** zure iritzia.

Gogoratu 2:30 minutu inguru duzula hitz egiteko.


Amaieran, aztertzaileak beste azterketariari galderaren bat egingo dio zure gaiaz, eta hark bere azalpena bukatzen duenean, zuri egingo dizu.

HABE

AZTERKETARIAREN EGITEKOA: B1 MAILA

Gaia prestatzeko 10 minutu

GAIA: Ezin bizi telefonorik gabe



Egoera:

Gehienok uste dugu sakelako telefonoa ezinbestekoa dela gure bizimoduan. Oso gutxitan ateratzen gara telefonorik gabe kalera. Sakelako telefonoan Interneta edukitzea ezinbestekoa egin zaigu.

Egitekoa:

Azaldu nola moldatzen zaren sakelako telefonoarekin. **Adierazi** sakelako telefonoa ezinbestekoa den ala ez zure egunero bizitzan. **Arrazoitu** eta **eman** adibideak. **Azaldu** sakelako telefonoa Interneten nabigatzeko erabiltzen duzun ala ez. **Adierazi**, zure ustez, sakelako telefonoa gehiegi erabiltzen dugun. **Arrazoitu zure iritzia**.

Gogoratu 2:30 minutu inguru duzula hitz egiteko.

Amaieran, aztertzaileak beste azterketariari galderaren bat egingo dio zure gaiaz, eta hark bere azalpena bukatzen duenean, zuri egingo dizu.

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

AZTERKETARIAREN EGITEKOA: **1. MAILA**

Ahozko azterketa

Gaia prestatzeko 10 minutu

GAIA: Eskolako uniformeak



Egoera:

Garai batean ikasle askok derrigorrez jantzen zuten uniformeak eskolara joateko. Urte batzuetan zehar uniformearen erabilerak behera egin du, baina azken urte hauetan berriro egin du gora.

euskaragara.net

Egitekoa:

Azaldu uniformeak janzteak dauzkan abantaila eta desabantailak. **Kontatu** zuk uniformeak erabiltzen zenuen ala ez. **Azaldu** txikitik zer nahiago zenuen uniformeak jantzi ala ez jantzi. Azkenik, **eman zure iritzia** uniformeak buruz eta **zehaztu** ados zauden ala ez uniformeak janztera behartzearekin.

Gogoratu 2 minutu inguru duzula hitz egiteko.

Amaieran, aztertzaileak beste azterketariari galderaren bat egingo dio zure gaiaz, eta hark bere azalpena bukatzen duenean, zuri egingo dizu.

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

AZTERKETARIAREN EGITEKOA: **1. MAILA**

Ahozko azterketa

Gaia prestatzeko 10 minutu

GAIA: TXAKURRAK, LOTUTA HOBE?



Egitekoa:

Gero eta txakur gehiago ikusten ditugu gure kaleetan. Legeak dio txakurrak lotuta eraman behar direla eta hori askotan jabeek ez dute betetzena.

Zehatzago

Azaldu zein diren txakurrek sortzen dituzten arazoak hirietan: zarata, gorotzak, txakur arriskutsuak... Zuk ba al duzu txakurrik? Beste animaliarik al duzu? Azaldu. Txakurrak gustuko al dituzu?

Azaldu txakurren batekin izan duzun pasadizoren bat.

euskaragara.net

Gogoratu 2 minutu inguru duzula hitz egiteko.

Amaieran, aztertzaileak beste azterketariari galderaren bat egingo dio zure gaiaz, eta hark bere azalpena bukatzen duenean, zuri egingo dizu.

HADE


Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

AZTERKETARIAREN EGITEKOA: **1. MAILA**

Ahozko azterketa

Gaia prestatzeko 10 minutu

Gaia: Trebea ala traketsa



EGOERA

Azken ikerketa baten arabera, gaurko gazteak traketsak dira tresna elektronikoak erabiltzen, ez dakite mapa bat ondo interpretatzen, ezagutzen ez duten hiri batean egongo balira, ez lukete metro sarea erabiltzen jakingo... Hitz gutxitan, ez dute inteligentzia praktikorik.

EGITEKOA

Azaldu nola moldatzen zaren tresna elektronikoekin. **Adierazi** gustatzen zaizun ala ez mundu elektroniko hau. **Kontatu** tresna elektronikoekin arazorik izan duzun ala ez. **Adierazi** zure ingurukoak zer moduz moldatzen diren tresna hauekin. **Adierazi** ikerketak dioenarekin ados zauden ala ez. **Arrazoitu** zure iritzia.

Gogoratu 2 minutu inguru duzula hitz egiteko.

Amaieran, aztertzaileak beste azterketariari galderaren bat egingo dio zure gaiaz, eta hark bere azalpena bukatzen duenean, zuri egingo dizu.